

Administrazioarekiko Auzien  
Jurisdikzioaren Legea  
Ley de la Jurisdicción  
Contencioso-Administrativa





# ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN JURISDIKZIOAREN LEGEA

---

## LEY DE LA JURISDICCIÓN CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVA

eman ta zabaitzazu



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE  
SEGURANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL



ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN  
JURISDIKZIOAREN LEGEA

---

LEY DE LA JURISDICCIÓN  
CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVA

CARMEN AGOUES MENDIZABAL

*EHUko Administrazio Zuzenbideko irakaslea*

JASONE URKOLA IRIARTE

*EHUko Administrazio Zuzenbideko irakaslea*

IRENE ALDASORO KATARAIN

PATXI PETRIRENA ALTZUGUREN

*Izultzaileak*

ANTTON ELOSEGI ALDASORO

*UPV/EHUko Euskara Juridikoko irakaslea*

*Zuzenbideko Euskararen Mintegiko arduraduna*

JUAN GARZIA GARMENDIA

*UPV/EHUko Euskara Zerbitzua*

JOSÉ ANGEL TAMAYO ERRAZQUIN

*UPV/EHUko Zuzenbide Erromatarreko Irakaslea*

*Argitalpenaren koordinatzailea*

- © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila  
Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco  
Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social
- © Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua  
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

Fotokonposizioa/Fotocomposición: Ipar, S. Coop.  
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimatzea/Impresión: Itxaropena, S.A.  
Araba Kalea, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)

ISBN: 978-84-8373-895-5  
Lege gordailua/Depósito legal: BI - 3.338-06

AURKIBIDEA

---

ÍNDICE

Prólogo. Joseba Azkarraga Rodero .....	14
La actividad de la jurisdicción contencioso-administrativa en euskera .....	20
LEY 29/1998, DE 13 DE JULIO, REGULADORA DE LA JURISDICCIÓN CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVA .....	27
<b>Exposición de motivos</b> .....	28
I. Justificación de la reforma .....	28
II. Ámbito y extensión de la jurisdicción contencioso-administrativa .....	36
III. Los órganos de la jurisdicción y sus competencias .....	40
IV. Las partes .....	42
V. Objeto del recurso .....	46
VI. El procedimiento .....	52
<b>Título I. Del orden jurisdiccional contencioso-administrativo</b> .....	62
Capítulo I. Ámbito .....	62
Capítulo II. Órganos y competencias .....	68
Capítulo III. Competencia territorial de los Juzgados y Tribunales .....	80
Capítulo IV. Constitución y actuación de las Salas de lo Contencioso-ad- ministrativo .....	82
Capítulo V. Distribución de asuntos .....	84
<b>Título II. Las partes</b> .....	86
Capítulo I. Capacidad procesal .....	86
Capítulo II. Legitimación .....	86
Capítulo III. Representación y defensa de las partes .....	92

<b>Hitzaurrea.</b> Joseba Azkarraga Rodero .....	15
<b>Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa euskaraz</b> .....	21
29/1998 LEGEA, UZTAILAREN 13KOA, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN JURISDIKZIOA ARAUTZEN DUENA .....	27
<b>Zioen azalpena</b> .....	29
I. Erreformaren justifikazioa .....	29
II. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eremua eta hedadura . . . .	37
III. Jurisdikzioaren organoak eta haien eskumenak .....	41
IV. Alderdiak .....	43
V. Errekursoaren objektua .....	47
VI. Prozedura .....	53
<b>I. titulua.</b> Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordena .....	63
I. kapitulua. Eremua .....	63
II. kapitulua. Organoak eta eskumenak .....	69
III. kapitulua. Epaitegi eta auzitegien lurralde-eskumena .....	81
IV. kapitulua. Administrazioarekiko auzien salen osaera eta jardura . . .	83
V. kapitulua. Auzi-banaketa .....	85
<b>II. titulua.</b> Alderdiak .....	87
I. kapitulua. Gaitasun prozesala .....	87
II. kapitulua. Legitimazioa .....	87
III. kapitulua. Alderdien ordezkaritza eta defentsa .....	93



<b>III. titulua.</b>	Administrazioarekiko auzi errekursoaren objektua . . . . .	93
I. kapitulua.	Aurkaratu daitekeen administrazio-jarduera . . . . .	93
II. kapitulua.	Alderdien uziak . . . . .	97
III. kapitulua.	Metatzea . . . . .	99
IV. kapitulua.	Errekursoaren munta . . . . .	103
<b>IV. titulua.</b>	Administrazioarekiko auzien prozedura . . . . .	107
I. kapitulua.	Lehen auzialdiko edo auzialdi bakarreko prozedura . . . . .	107
	1. atala. Aurretiazko eginbideak . . . . .	107
	2. atala. Errekurtoa jartzea eta espedientea erreklamatzea . . . . .	109
	3. atala. Demandatuak epatzea eta errekurtoa onartzea . . . . .	117
	4. atala. Demanda eta erantzuna . . . . .	121
	5. atala. Aurretiazko alegazioak . . . . .	125
	6. atala. Frogaldia . . . . .	127
	7. atala. Ikustaldia eta konklusioak . . . . .	129
	8. atala. Epaia . . . . .	133
	9. atala. Prozedura amaitzeko beste modu batzuk . . . . .	139
II. kapitulua.	Prozedura laburtua . . . . .	143
III. kapitulua.	Probidentzia, auto eta epaien kontrako errekurtoak . . . . .	151
	1. atala. Probidentzia eta autoen kontrako errekurtoak . . . . .	151
	2. atala. Apelazio-errekurto arrunta . . . . .	153
	3. atala. Kasazio-errekurtoa . . . . .	159
	4. atala. Doktrina bateratzeko kasazio-errekurtoak . . . . .	171
	5. atala. Legearen intereseko kasazio-errekurtoak . . . . .	177
	6. atala. Berrikuspen-errekurtoa . . . . .	181
IV. kapitulua.	Epaien exekuzioa . . . . .	183
<b>V. titulua.</b>	Prozedura bereziak . . . . .	195
I. kapitulua.	Pertsonaren oinarrizko eskubideak babesteko prozedura . . . . .	195
II. kapitulua.	Legezkontraktotasun-arazoa . . . . .	201
III. kapitulua.	Erabakien aurretiko administrazio-geldiera kasuetarako prozedura . . . . .	205
<b>IV. titulua.</b>	IV. eta V. tituluen xedapen erkideak . . . . .	207
I. kapitulua.	Epeak . . . . .	207

Capítulo II. Medidas cautelares .....	206
Capítulo III. Incidentes e invalidez de actos procesales .....	212
Capítulo IV. Costas procesales .....	212
<b>Disposiciones adicionales .....</b>	<b>214</b>
<b>Disposiciones transitorias .....</b>	<b>220</b>
<b>Disposiciones derogatorias .....</b>	<b>224</b>
<b>Disposiciones finales .....</b>	<b>226</b>
<b>LÉXICO .....</b>	<b>239</b>

II. kapitulua. Kautela-neurriak . . . . .	207
III. kapitulua. Intzidenteak eta egintza prozesalen baliogabetasuna . . . .	213
IV. kapitulua. Prozesuaren kostuak . . . . .	213
Xedapen gehigarriak . . . . .	215
Xedapen iragankorrak . . . . .	221
Xedapen derogatzaileak . . . . .	225
Amaierako xedapenak . . . . .	227
LEXIKOA . . . . .	231

# Prólogo

La presentación de esta obra constituye, nuevamente, una oportunidad de manifestar mi satisfacción por el hecho de que la Colección «Leyes» siga incrementándose y, consiguientemente, el Convenio de Colaboración que, en materia de traducción de textos jurídicos, se halla suscrito entre el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco y la Universidad del País Vasco – Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, experimente un desarrollo y avance que hablan, por sí solos, de la riqueza y ventajas del mismo para con el mundo jurídico, académico y profesional.

En mi condición de Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, he de resaltar la importancia de la **Ley 29/1998, de 13 de Julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa [LRJCA]**, toda vez que, como indica el propio artículo 1 de la misma, esta jurisdicción conocerá de las pretensiones que se deduzcan en relación con la actuación de las Administraciones Públicas, habiendo de comprender entre ellas las Administraciones de las Comunidades Autónomas. En concreto, conocerá de cuestiones que se susciten en relación con los actos de los Consejos de Gobierno de las Comunidades Autónomas —artículo 2.a) LRJCA.

La Jurisdicción Contencioso-Administrativa supone un mecanismo de articular las relaciones entre la Administración Pública y la Justicia. En la evolución que ha experimentado dicho mecanismo a lo largo de la historia cabe destacar hitos y modelos muy significativos. Así, por una parte, cabría señalar el estadio resultante de la Revolución Francesa, en el que los actos de la Administración estaban exentos de la tutela de los Tribunales, reservándose, de este modo, un espacio propio y privativo a la Administración en el que la Justicia no podía intervenir. De otra parte, cabe destacar el modelo absolutamente opuesto, en el que el sometimiento de la Administración a la Justicia es total y completo. Este modelo resulta ser, básicamente, el anglosajón, si bien en la actualidad no se mantiene en la citada puridad. El tercer modelo, intermedio, se-

# Hitzaurrea

Lan hau aurkezteak aukera ematen dit, berriz ere, poza agertzeko, «Legeak» bilduma zabaltzen ari delako, eta horrekin, bistan denez, garatzen eta aurreratzten ari delako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak eta UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitatean testu juridikoen itzulpenerako sinaturiko hitzarmena. Esan beharrik ez dago zer onura eta abantaila dakarren aurrerapen horrek juristentzat, arlo akademikoan nahiz profesionalean.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburu naizen aldetik, azpimarratu beharra daukat zeinen garrantzitsua den orain aurkezten dugun lege hau, hots, **Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen 29/1998 Legea, 1998ko uztailaren 13koa**. Izan ere, 1. artikuluan bertan adierazten duenez, jurisdikzio horren ardura dira administrazio publikoen jardueraren inguruan aurkezturiko uziak, administrazio horien artean harturik autonomia-erkidegoenak. Besteak beste, autonomia-erkidegoetako gobernu-kontseiluen egintzez arduratuko da —AAJAL, 2.a) artikulua.

Administrazio publikoaren eta Justiziaren arteko harremanak bideratzeko mekanismoa da Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa. Denborarekin mekanismo horrek izan duen bilakaeran, badira mugarrak eta eredu oso adierazgarriak. Alde batetik, Frantziako Iraultzaren ondoriozko aldia aipatu behar da, administrazioaren egintzak auzitegien kontroletik kanpo baitzeuden, eta Justiziak esku hartzerik ez zeukan eremu propio eta itxi bat baitzuen administrazioak. Bestetik, aipagarria da guttiz kontrako ereduak, zeinetan administrazioa osotara mederaturik baitzegoen Justiziarri. Eredu hori, funtsean, anglosaxoniarra da, nahiz gaur egun ez dion erabatekotasun horri eusten. Hirugarren ereduak, aurreko bien bitartekoa, egungo legeria kontinentalek jarraitzen dutena eta hemen aurkezten dugun legea ere hartzen duena, zera da: administrazioaren auto-

guido por las legislaciones continentales actuales y al que pertenece la Ley que aquí se presenta, implica la autotutela administrativa con posibilidad de revisión posterior, en su caso, de los actos por parte de los Tribunales; esto es, la Administración resuelve de un modo ejecutivo, si bien los Tribunales gozan de la potestad de revisar sus actuaciones.

Pues bien, la Ley de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa vigente, consolidando la naturaleza judicial de la misma y generalizando el control judicial de la actuación administrativa, se adecua a la nueva vertebración territorial y procura dar cumplimiento, de un modo diligente y eficaz, a los conflictos Administración-administrado.

La organización de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa se halla integrada por diferentes órganos —artículo 6 LRJCA—: Juzgados de lo Contencioso-Administrativo, Juzgados Centrales de lo Contencioso-Administrativo —adscritos a la Audiencia Nacional—, Salas de lo Contencioso-Administrativo de los Tribunales Superiores de Justicia, Sala de lo Contencioso-Administrativo de la Audiencia Nacional y Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Supremo. Ciertamente, la existencia en esta estructura de las dos categorías citadas de «Juzgados» presupone toda una novedad en esta jurisdicción, ya que ha carecido de órganos unipersonales, caracterizándose por el carácter colegiado de las Salas.

Asimismo, es preciso poner de relieve la delimitación material de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa. En este sentido, junto con la delimitación positiva —artículos 1, 2 y 4 LRJCA— y negativa —artículo 3 LRJCA— de las materias comunes u ordinarias, han de destacarse tres procedimientos especiales por razón del objeto. En primer lugar, el **procedimiento para la protección de los derechos fundamentales de la persona** —artículos 114 a 122, ambos inclusive, LRJCA—. Este procedimiento, que se trata de un proceso preferente y urgente, implica la integración, con ciertas modificaciones, en el texto legal del proceso que se regulaba en la Ley 62/1978, de 28 de Diciembre. En segundo lugar, **la cuestión de ilegalidad** —artículos 123 a 126, ambos inclusive, LRJCA—, que tiene su razón de ser en el planteamiento que un Juez o Tribunal hacen de oficio de una cuestión de ilegalidad en el caso de que se hubiere dictado sentencia firme considerando ilegal el contenido de una disposición general aplicada. Finalmente, **el procedimiento en los casos de suspensión administrativa previa de acuerdos** —artículo 127 LRJCA—, que, fundamentalmente, cabe referir al artículo 67 de la Ley 7/1985, de 12 de Abril, de Bases del Régimen Local.

No obstante lo manifestado, se ha de señalar también la necesidad de atender a nuevos espacios emergentes en la realidad socio-económica y sometidos a la tutela de la Administración, la cual, derivativamente, presenta ámbitos nece-

kontrola, ondoren auzitegiek, behar izanez gero, egintzak berrikusteko aukera dutela; hau da, administrazioak modu exekutibo batean ebatzen du, baina auzitegiek haren jarduera berrikusteko ahala dute.

Horrela, bada, indarrean den Administrazioarekiko Auzien Legea, bere izaera judiziala sendotuz eta administrazio-jardueraren kontrol judiziala zabalduz, egokitu egiten da lurralde-egituratze berrira, eta administrazioaren eta administrazioaren arteko gatazkak modu arin eta eraginkorrean bideratzeko ahalegina egiten du.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa hainbat organok osaturik dago (AAJALen 6. artikulua): administrazioarekiko auzien epaitegiak, administrazioarekiko auzien epaitegi zentralak —Auzitegi Nazionalari atxikiak—, justizia-uzitegi nagusietako administrazioarekiko auzien salak, Auzitegi Nazionalako administrazioarekiko auzien sala eta Auzitegi Goreneko administrazioarekiko auzien sala. Aipaturiko bi kategorien egitura hori izatea, egiazki, berrikuntza handia da jurisdikzio honetan, zeren lege hau atera arte, pertsona bakarreko organorik ezean, salen izaera kolegiatuan oinarritu baita.

Era berean, nabarmendu beharrekoa da Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren gai-zedarritzea. Alde horretatik, gai ohiko edo arrunten baiezkako zedarritzea (AAJALen 1., 2. eta 4. artikulua) eta ezezko zedarritzea (AAJALen 3. artikulua) ez ezik, azpimarratzekoak dira objektuaren arabera hiru prozedura berezi. Lehenik, **personaren oinarrizko eskubideak babesteko prozedura** (AAJALen 114-122 artikulua, biak barne). Prozedura hori lehentasunezkoa eta presazkoa da, eta berekin dakar 1978ko abenduaren 28ko 62/1978 Legean arautzen zen prozesua testu honetan integratzea, aldaketa batzuekin. Bigarrenik, **legezkontrakotasun-arazoa** (AAJALen 123-126 artikulua, biak barne); horren bitartez, epaile edo auzitegi batek legezkontrakotasun-arazoa planteatu dezake, ofizioz, aplikaturiko xedapen orokor bat epai irmoz legez kontrako jotzen den kasuan. Azkenik, **erabakien aurretiazko administrazio-geldiera kasuetarako prozedura** (AAJALen 127. artikulua); hori, funtsean, 1985eko apirilaren 12ko 7/1985 Toki Araubidearen Oinarri Legearen 67. artikularekin lotu behar da.

Hala ere, esan behar da errealitate sozio-ekonomikoan sortzen ari diren eta administrazioaren kontrolpean dauden eremu berri batzuk ere aintzat hartu behar direla, espezializazio berriak eskatzen dituzten guneak baititu administra-

sitados de nuevas especializaciones. En este orden de cosas, se ha de destacar la ordenación jurídica de la Economía y los espacios del intervencionismo administrativo, habiéndose de cohonestar tal modo de proceder con el derecho a la libertad de empresa, cuyo reconocimiento se halla sometido a unos límites, tales como el marco de la economía de mercado y las exigencias de la economía general y, en su caso, de la planificación. Pues bien, amén del régimen de las empresas públicas, cada día se hace más notoria la regulación administrativa de los sectores económicos, los cuales, al margen de los operadores privados, se hallan sometidos a organismos reguladores. Como ejemplo de lo manifestado, bastaría señalar el sector financiero —Banca y Mercados de Valores—, el sector energético o el de las telecomunicaciones, en los que los correspondientes Organismos Reguladores —Banco de España, Comisión Nacional del Mercado de Valores, Comisión del Mercado de Telecomunicaciones, etc— actúan de supervisores de los operadores privados, los cuales, en el citado ámbito, han de regirse por la normativa reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, la cual, obviamente, ha de tener una cualificación muy especializada por la naturaleza y complejidad que presentan tales diferentes ámbitos económicos.

Por último, no me resta más que reiterar mi satisfacción por esta obra y hacer llegar mi felicitación a sus autores, al tiempo que deseo que todos los que participamos en el Convenio continuemos con esta colaboración que permita la publicación de nuevos textos próximamente.

Joseba AZKARRAGA RODERO  
Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social

zioak. Ildo horretan, nabarmendu beharrekoak dira ekonomiaren ordenazio juridikoa eta administrazioaren interbentzionismoaren eremuak, jokamolde hori enpresa-askatasunarekin bateratu beharra baitago, askatasun hori aitortzeak dituen mugekin: merkatu-ekonomiaren esparrua eta ekonomia orokorraren eskakizunak eta, hala badagokio, planifikazioaren eskakizunak. Bada, enpresa publikoen araubidetik at ere egunetik egunera nabariago da ekonomia-sektoreen erregulazio administratiboa; izan ere, sektore horiek, operadore pribatuez gain, organismo erregulatzaileen mende daude. Adibide gisa, aski da aipatzea finantza-sektorea —bankuak eta balore-merkatuak—, energiaren sektorea edo telekomunikazioena, zeinetan erregulazio-organismoek —Espainiako Bankua, Balore Merkatuen Batzorde Nazionala, Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordea, eta abar— operadore pribatuen gainbegiratzaile gisa baitihardute eta operadore pribatu horiek, eremu horretan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren araudiaren pean baitaude. Zer esanik ez, jurisdikzio horrek kualifikazio oso espezializatua izan behar du ekonomia-arlo horiek dakarten konplexutasunari erantzuteko.

Bururatzeko, adieraz dezadan berriro ere lan honek ematen didan poza, eta egileei zorionak eman. Lankidetzan honetan jarraituko ahal dugu hitzarmenean partaide garen guztiok, eta hartara, luze gabe, testu gehiago argitaratu.

Joseba AZKARRAGA RODERO  
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburua

# La actividad de la jurisdicción contencioso-administrativa en euskera

El Derecho Administrativo pretende un equilibrio entre las potestades y privilegios que poseen las administraciones públicas (que se distinguen por su carácter finalista, funcional e instrumental) y las garantías, tanto individuales como colectivas, de los ciudadanos. Ambas vertientes emanan de la Constitución<sup>1</sup> cuyos artículos 24, 103.1 y 106.1 proclaman de un modo específico los principios de garantía, eficacia y control.

Ante los privilegios que ostenta la administración en sus relaciones con los ciudadanos, necesita inexcusablemente ser controlada. El aspecto fundamental del Derecho Administrativo es su caracterización como sistema de control jurídico. Este control jurídico queda, en última instancia, en manos de la jurisdicción contencioso-administrativa, elemento nuclear, específico y distintivo de ese Derecho Administrativo. En este contexto, por tanto, la Ley 29/1998, de 30 de junio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa se enmarca en la búsqueda del equilibrio entre las potestades administrativas y las garantías de los ciudadanos, entre los privilegios administrativos y su control. La Ley 29/1998, como verdadero pilar en esta función de control, constituye una técnica de protección imprescindible en el Estado de Derecho. En definitiva, se trata de incorporar el gran dilema del Derecho Público, cual es la dialéctica entre el poder y la libertad, entre el Estado y los individuos.

Sin embargo, no cabe pretender que esta jurisdicción pueda servir para mejorar en todas sus vertientes el funcionamiento de la Administración Pública,

---

<sup>1</sup> Cuya traducción ha sido objeto del primer volumen de la presente colección LEGEAK-LEYES.

# Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa euskaraz

Administrazio publikoei emandako ahal eta pribilegioak (ez da ahaztu behar ahal eta pribilegio horiek helburu finalista, funtzional eta instrumentala dutela) eta herritarren bermeak (berdin banakoak nahiz kolektiboak) orekatzea du asmo Administrazio Zuzenbideak. Bi alderdi horiek Konstituzioa<sup>1</sup> dute sorburu, haren 24., 103.1 eta 106.1 artikuluek bereziki aldarrikatu baitituzte, hurrenez hurren, berme-printzipioa, eraginkortasun-printzipioa eta kontrol-printzipioa.

Administrazioa kontrolpean izatea ezinbestekoa da, bada, herritarrekin dituen harremanetan darabiltzan pribilegioak kontuan izanda. Ondorioz, Administrazio Zuzenbidearen ezaugarri nagusia kontrol juridikorako sistema izatea da. Kontrol juridiko hori, azken finean, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskuetan geratuko da, jurisdikzio hori baita Administrazio Zuzenbidearen elementu nuklear, espezifiko eta bereizgarria. Testuinguru horretan, beraz, 1998ko ekainaren 30eko 29/1998 Lege hau, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena, oreka lortzeko ahaleginen inguruan kokatzen da: administrazio-ahalen eta herritarren bermeen arteko oreka, administrazioaren pribilegioen eta pribilegio horien kontrolaren arteko oreka. Horrela, 29/1998 Legea, kontrol-funtzio horren zutabe, zuzenbide-estatuan ezinbestekoa den babes-teknika bihurtzen da. Azken finean, zuzenbide publikoaren dilema nagusia txertatu nahi izan da bertan: boterearen eta libertatearen arteko dialektika, hain zuzen ere, estatuaren eta gizabanakoen arteko dialektika.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak ezin izango ditu hobetu, ordea, administrazio publikoaren funtzionamenduaren alderdi guztiak. Hori lortzeko,

---

<sup>1</sup> Haren itzulpena argitaratu da, hain zuzen ere, LEGEAK-LEYES bilduma honen lehen alean.

para lo cual a nadie se le oculta que sería necesario el complemento de otras técnicas organizativas y funcionales. En cualquier caso, la jurisdicción contencioso-administrativa además de ser, como se ha dicho, un instrumento de control, garantía individual y técnica de protección, contribuye a moderar y encauzar conflictos, como técnica de integración social al servicio de la convivencia ciudadana.

Así, ese aspecto de garantía que tanto se subraya debe ser reforzado desde la perspectiva de los derechos de los ciudadanos y, concretamente, del derecho a utilizar las lenguas oficiales en el territorio de su Comunidad Autónoma, de acuerdo con lo previsto en el ordenamiento jurídico.

La propia Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial, reconoce, en su artículo 231, la plena validez y eficacia de las actuaciones judiciales realizadas y los documentos presentados en la lengua oficial propia de la Comunidad Autónoma, una vez prevista —en clara conexión con el derecho recogido por el artículo 35.d de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, reguladora del régimen jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común— no sólo la posibilidad de utilización de la lengua cooficial, tanto en sus manifestaciones orales como escritas, por las partes, por sus representantes y quienes les dirijan o por testigos y peritos, sino también la posibilidad de su utilización por parte de jueces, magistrados, fiscales, secretarios y demás funcionarios de juzgados y tribunales, si ninguna de las partes se opone por desconocimiento de aquella que pudiere producirle indefensión.

Todo ello remite, ineludiblemente, a la normalización del euskera, en cuanto lengua oficial de nuestra Comunidad Autónoma, como lengua de uso habitual también ante los juzgados y tribunales ubicados en el territorio de la CAV y, concretamente, ante los del orden jurisdiccional contencioso-administrativo.

No cabe olvidar que la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera<sup>2</sup> dispone en su artículo 9 que todo ciudadano, en sus relaciones con la Administración de Justicia, podrá utilizar la lengua oficial de su elección, sin que se le pueda exigir traducción alguna y que, en ese contexto, los escritos y documentos presentados en euskera, así como las actuaciones judiciales, serán totalmente válidos y eficaces. En esta línea, el artículo 8 impone, a efectos de publicidad oficial, la redacción en forma bilingüe de toda resolución oficial que emane de los poderes públicos sitos en la Comunidad

---

<sup>2</sup> Publicada en el Boletín Oficial del País Vasco núm. 160, con fecha de 16 de diciembre de 1982.

guztiok ongi dakigun moduan, bestelako teknika batzuekin osatu beharko litzatete: antolamenduaren eremuko teknikak nahiz teknika funtzionalak. Edozein modutan ere, administrazioarekiko azuzien jurisdikzioa, esan den bezala, bada kontrol-tresna, gizabanakoan berme eta babes-teknika, bai, baina, horretaz guztiaz gainera, gatazkak bideratzen laguntzen du, herritarren elkarbizitzan gizarte-integrazioa lortzeko teknika ere bada eta.

Hainbeste azpimarratu ohi den berme-izaera hori, beraz, indartu egin behar da herritarren eskubideen ikuspegitik, eta, besteak beste, ordenamendu juridikoak aurreikusitakoaren arabera, norik bere autonomia-erkidegoaren lurraldean ofizialak diren hizkuntzak erabiltzeko duen eskubidearen ikuspegitik.

1985eko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoak berak, Botere Judiziala arautzen duenak, aurreikusia du, bere 231. artikuluan, autonomia-erkidegoaren berezko hizkuntza ofizialean eginiko jarduera judizialen eta hizkuntza horretan aurkezturiko dokumentuen baliozkotasun eta eraginkortasun osoa. Aurreikuspen hori bat dator alderdiek, euren ordezkari eta zuzendari juridikoeak, edo lekuko eta perituek, ahoz nahiz idatziz egindako adierazpenetan hizkuntza koofiziala erabiltzeko aukera lege organiko horrek berak aurrez jaso izanarekin —1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, administrazio publikoaren araubide juridikoa eta administrazio-prozedura erkidea arautzen duenak, bere 35.d artikuluan jasotako eskubidearekin harreman garbia erakutsiz—, eta orobat epaile, magistratu, fiskal, idazkari eta epaitegi eta auzitegi-tako gainerako funtzionarioek, baldin eta alderdietariko inor ez bada aurka agertzen, hizkuntza hori ezagutzen ez duelako defentsarik eza sor dakiokelakoan, erabiltzeko eman dien aukerarekin ere.

Honek guztiak, ezinbestean, euskararen normalizazioaren arlora garamatza, gure autonomia-erkidegoko hizkuntza ofizial izanik, ohiko hizkuntza izan dadin bertako epaitegi eta auzitegi-tan, eta zehatzago esanda, administrazioarekiko azuzien jurisdikziokoetan.

Ez dugu ahantzi behar ezen 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, euskararen erabiltzea normalizatzeko oinarriak arautzen dituenak<sup>2</sup>, bere 9. artikuluan aurreikusten duenez, herritar oro epaileekiko harremanetan aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izango dela, inolako itzulpenik ezin exiji dakiokelarik, eta, ondorioz, euskaraz aurkeztutako idazki eta agiriak, eta orobat jarduera judizialak, balio osoak eta eragite-indarrekoak izango direla. Ildo beretik, lege horren 8. artikulua agintzen duenez, autonomia-erkidegoan kokaturiko botere publikoek onarturiko ebazpen ofizial orok bi hizkuntzetan idatzita egon beharko

---

<sup>2</sup> Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 160. alean argitaratua, 1982ko abenduaren 16an.

Autónoma, y que añade a ello, con carácter general, el preceptivo bilingüismo de todo acto en el que intervenga alguno de los citados poderes públicos.

En este sentido, merece un especial reconocimiento, que se quiere hacer patente y expreso desde estas líneas, el esfuerzo que se ha venido realizando, en las dos últimas décadas, en relación con la traducción al euskera de los distintos modelos de documentos judiciales. No obstante, tampoco se debe olvidar la ingente labor que aún queda por hacer, de modo específico, en el ámbito de la jurisdicción contencioso-administrativa, en el que la proporción de documentos traducidos es, en la actualidad, infinitamente menor en comparación con otras jurisdicciones.

Por ello se ha estimado de especial interés esta traducción, que podría ser ya suficientemente justificada por la propia importancia sustantiva de la Ley 29/1998, la cual se ha intentado plasmar al inicio de estas líneas. Sin embargo, entendemos que la especial situación de la jurisdicción contencioso-administrativa en la coyuntura actual, con un marcado déficit en la elaboración de documentos normalizados bilingües, pone de relieve aún más, si cabe, el valor referencial que puede asumir el texto traducido, no sólo en el funcionamiento cotidiano de los órganos de esta jurisdicción y en las labores realizadas tanto por sus titulares como por el personal de apoyo, sino también en el desarrollo de las tareas de otros profesionales directamente relacionados con los mismos (cabe resaltar de modo específico, el mundo de los abogados y procuradores), lo cuál redundará, sin duda, en un correcto desarrollo bilingüe del proceso contencioso-administrativo. Esa ha sido, al menos, nuestro propósito.

No obstante, la utilización cotidiana de las propuestas que se efectúan en esta sede, su utilización real, será, sin ningún género de duda, la que determinará el grado de validez de tales propuestas.

Donostia, diciembre de 2006

Carmen AGOUES MENDIZABAL  
Jasone URKOLA IRIARTE

du zabalkunde ofiziala egiteko, eta, horretaz gainera, aipaturiko botere publiko horietakoren batek parte hartzen duen edozein jardun elebiduna izan dadin xedatzen du, arau orokor gisa.

Ikuspegi horretatik begiratuta, bereziki eskertzea merezi du, eta horretarako erabili nahi ditugu lerro hauek, hain zuzen ere, azken bi hamarkada hauetan dokumentu judizialen ereduak euskarara itzultzeko egin den lanak. Ez da ahan-tzi behar, ordea, oraindik egiteko geratzen den lan handia, eta, bereziki, gaur egun administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eremuan egiteke dagoena, gainerako jurisdikzioetakoan aldean askoz ere txikiagoa baita itzulitako doku-mentuen proportzioa.

Horrek ere interes berezia eman dio itzulpen honi, nahiz eta 29/1998 Le-gearen garrantzi substantiboak berez nahikoa justifikatu ahal izan, lerro hauen hasieran erakutsi nahi izan den moduan. Egun administrazioarekiko auzien ju-risdikzioak duen egoera bereziak, ordea, dokumentu elebidun normalizatu-entzen prestaketan defizit nabaria baitu, are gehiago azpimarratzen du xede horretara-ko itzulpen-testuak bere gain har dezakeen erreferentzia-balioa; ez bakarrik ju-risdikzio honetako organoen eguneroko funtzionamenduan eta haien titularrek nahiz laguntza-pertsonalak eginiko lanetan, baizik eta haiekin harreman zuzena duten bestelako lanbideetan dihardutenetan ere bai (abokatu eta prokuradore-ena azpimarratu nahi genuke, bereziki). Honek guztiak, zalantzarik gabe, admi-nistrazioarekiko auzien prozesu elebiduna egoki garatzen lagun dezake. Hori izan da, bederen, gure asmoa.

Orain egiten ditugun proposamenen eguneroko erabilpenak, bere beneta-ko erabilpenak, zehaztuko du, nolana ere, proposamen horien baliozkotasun-maila, inolako zalantzarik gabe.

Donostia, 2006ko abendua

Carmen AGOUES MENDIZABAL  
Jasone URKOLA IRIARTE



29/1998 LEGEA, UZTAILAREN 13KOA,  
ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN  
JURISDIKZIOA ARAUTZEN DUENA

---

LEY 29/1998, DE 13 DE JULIO,  
REGULADORA DE LA JURISDICCIÓN  
CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVA

## Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

#### I. JUSTIFICACIÓN DE LA REFORMA

La Jurisdicción Contencioso-Administrativa es una pieza capital de nuestro Estado de Derecho. Desde que fue instaurada en nuestro suelo por las Leyes de 2 de abril y 6 de julio de 1845, y a lo largo de muchas vicisitudes, ha dado sobrada muestra de sus virtualidades.

Sobre todo desde que la Ley de 27 de diciembre de 1956 la dotó de las características que hoy tiene y de las atribuciones imprescindibles para asumir la misión que le corresponde de controlar la legalidad de la actividad administrativa, garantizando los derechos e intereses legítimos de los ciudadanos frente a las extralimitaciones de la Administración.

Dicha Ley, en efecto, universalmente apreciada por los principios en los que se inspira y por la excelencia de su técnica, que combina a la perfección rigor y sencillez, acertó a generalizar el control judicial de la actuación administrativa, aunque con algunas excepciones notorias que imponía el régimen político bajo el que fue aprobada. Ratificó con énfasis el carácter judicial del orden contencioso-administrativo, ya establecido por la legislación precedente, preocupándose por la especialización de sus Magistrados. Y dio luz a un procedimiento simple y en teoría ágil, coherente con su propósito de lograr una justicia eficaz y ajena a interpretaciones y prácticas formalistas que pudieran enervar su buen fin. De esta manera, la Ley de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa de 1956 abrió una vía necesaria, aunque no suficiente, para colmar las numerosas lagunas y limitaciones históricas de nuestro Estado de Derecho, oportunidad que fue adecuadamente aprovechada por una jurisprudencia innovadora, alentada por el espectacular desarrollo que ha experimentado la doctrina española del Derecho Administrativo.

Sin embargo, las cuatro décadas transcurridas desde que aquella Ley se aprobó han traído consigo numerosos y trascendentales cambios, en el ordenamiento jurídico, en las instituciones político-administrativas y en la sociedad. Estos cambios exigen, para alcanzar los mismos fines institucionales, soluciones necesariamente nuevas, pues, no obstante la versatilidad de buena parte de su articulado, la Ley de 1956 no está ajustada a la evolución del ordenamiento y a las demandas que la sociedad dirige a la Administración de Justicia.

## 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena

### ZIOEN AZALPENA

#### I. ERREFORMAREN JUSTIFIKAZIOA

Gure zuzenbide-estatuaren atal nagusi bat da Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa. 1845eko apirilaren 2ko eta uztailaren 6ko legeek gure lurraldean hura ezarri zuten geroztik, eta gorabehera asko ezagutu eta gero, ondo baino hobeto erakutsi du zer-nolako gaitasunak dituen.

Batez ere, 1956ko abenduaren 27ko legeaz geroztik, lege horrek eman baitzizkion administrazioarekiko jurisdikzioari egun dituen ezaugarriak eta ezinbesteko eskudantziak dagokion eginkizuna betetzeko: administrazio-jardueraren legezkotasuna kontrolatzea, herritarren eskubide eta interes legitimoak bermatuz administrazioaren gehiegikerien aurrean.

Lege hori, jarraitzen dituen printzipioengatik eta zorroztasuna erraztasunarekin ezin hobeto uztartzen duen teknika bikainagatik orok balioetsia, egokia izan da administrazio-jardueraren kontrol judiziala orokortzeko, nahiz eta salbuespen nabarmen batzuk izan, legea onetsi zeneko erregimen politikoak ezarriak. Lege horrek indar bereziz berretsi zuen administrazioarekiko auzien ordenaren izaera judiziala, aurreko legeriak ordurako ezarria, eta ordena horretako magistratuen espezializazioaz arduratu zen. Era berean, prozedura simple eta teoriarik laster bat sortu zuen, justizia eraginkor bat lortzeko asmoarekin bat zetorrena eta alde batera uzten zituena bere xede ona galaraz zezaketen interpretazio eta praktika formalistak. Hala, 1956ko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legeak bide bat ireki zuen, beharrezkoa, baina ez hala ere nahikoa, gure zuzenbide-estatuaren muga eta hutsune historiko ugariak osatzeko, eta bide hori egoki baliatu zuen garaiko jurisprudentziak, berriro jokaturik, administrazio-zuzenbideko espainiar doktrinak izan duen garapen ikusgarriak bultzatuta.

Hala ere, lau hamarkada igaro dira lege hura onetsi zenetik, eta aldaketa ugari eta garrantzitsuak izan dira bitarte horretan ordenamendu juridikoan, erakunde politiko-administratiboetan eta gizartean. Aldaketa horien ondorioz, irtenbide berriak behar dira, nahitaez, instituzioen xede berak lortzeko, zeren, legegaren artikuluen parte handi bat moldagarria bada ere, 1956ko legea ez baitago doiturik ordenamenduaren bilakaerari eta gizarteak justizia-administrazioari eskatzen dionari erantzuteko.

Ante todo, hay que tener en cuenta el impacto producido por la Constitución de 1978. Si bien algunos de los principios en que ésta se funda son los mismos que inspiraron la reforma jurisdiccional de 1956 y que fue deduciendo la jurisprudencia elaborada a su amparo, es evidente que las consecuencias que el texto constitucional depara en punto al control judicial de la actividad administrativa son muy superiores. Sólo a raíz de la Constitución de 1978 se garantizan en nuestro país plenamente los postulados del Estado de Derecho y, entre ellos, el derecho de toda persona a la tutela judicial efectiva de sus derechos e intereses legítimos, el sometimiento de la Administración Pública a la ley y al derecho y el control de la potestad reglamentaria y de la legalidad de la actuación administrativa por los Tribunales. La proclamación de estos derechos y principios en la Constitución y su eficacia jurídica directa han producido la derogación implícita de aquellos preceptos de la Ley Jurisdiccional que establecían limitaciones en el acceso a los recursos o en su eficacia carentes de justificación en un sistema democrático. Pero el alcance de este efecto derogatorio en relación a algunos extremos de la Ley de 1956 ha seguido siendo objeto de polémica, lo que hacía muy conveniente una clarificación legal. Además, la jurisprudencia, tanto constitucional como Contencioso-Administrativa, ha extraído de los principios y preceptos constitucionales otras muchas reglas, que imponen determinadas interpretaciones de dicha Ley, o incluso sostienen potestades y actuaciones judiciales no contempladas expresamente en su texto. Por último, la influencia de la Constitución en el régimen de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa no se reduce a lo que disponen los artículos 9.1, 24, 103.1 y 106.1. De manera más o menos mediata, la organización, el ámbito y extensión material y el funcionamiento de este orden jurisdiccional se ve afectado por otras muchas disposiciones constitucionales, tanto las que regulan principios sustantivos y derechos fundamentales, como las que diseñan la estructura de nuestra Monarquía parlamentaria y la organización territorial del Estado. Como el resto del ordenamiento, también el régimen legal de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa debe adecuarse por entero a la letra y al espíritu de la Constitución.

Por otra parte, durante los últimos lustros la sociedad y la Administración españolas han experimentado enormes transformaciones. La primera es hoy incomparablemente más desarrollada, más libre y plural, emancipada y consciente de sus derechos que hace cuarenta años. Mientras, la Administración reducida, centralizada y jerarquizada de antaño se ha convertido en una organización extensa y compleja, dotada de funciones múltiples y considerables recursos, descentralizada territorial y funcionalmente. Al hilo de estas transformaciones han variado en buena medida y se han diversificado las formas jurídicas de la

Ororen gaintik, kontuan hartu behar da 1978ko Konstituzioak izandako eragina. Nahiz eta Konstituzioaren oinarrian dauden printzipio batzuk 1956ko jurisdikzio-erreforma eragin zuten eta haren babesean landutako jurisprudentzia mamituz joan zen printzipio berak izan, garbi dago Konstituzioaren testuak askoz ondorio handiagoak dakartzala administrazio-jardueraren kontrol judizialari dagokionez. Gure herrialdean, 1978ko Konstituzioaz geroztik baino ez dira bete-betean bermatzen zuzenbide-estatuaren postulatuak, eta, haien artean, pertsonak bere eskubide eta interes legitimoen babes judiziala izateko eskubidea, administrazio publikoa legera eta zuzenbidera menderatzea, eta erregelamendu-ahala eta administrazioaren jardueraren legezotasuna auzitegiak kontrolatzea. Eskubide eta printzipio horiek Konstituzioan aldarrikatzeak eta zuzeneko eraginkortasun juridikoa izateak inplizituki derogatu ditu errekurtsotarako irismena edo errekurtsoen eraginkortasuna mugatzen zuten jurisdikzio-legearen manuak, sistema demokratiko batean justifikaziorik ez zutenak. Baina eztabaidagai izaten jarraitu du, 1956ko legearen puntu batzuei dagokienez, derogatze-efektu horren norainokoak, eta oso komenigarria zen argi egitea, lege bitartez. Gainera, jurisprudentziak, bai konstituzio-arlokoak eta bai administrazioarekiko auzietakoak, beste erregela asko atera ditu Konstituzioaren printzipio eta manuetatik, eta interpretazio jakin batzuk ezarri dizkiote erregelok lege horri, edo are legearen testuan espresuki aintzat hartu gabeko hainbat ahal eta jarduera judiziali sostengua eman diote. Azkenik, Konstituzioak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren araubidean duen eragina ez da mugatzen 9.1, 24, 103.1 eta 106.1 artikuluek xedatzen dutenera. Arartekotasun handiagoz edo txikiagoz, jurisdikzio-ordena horren antolamenduari, eremu eta hedadura materialari eta funtzionamenduari eragiten diote beste konstituzio-xedapen askok: bai printzipio substantiboak eta oinarritzko eskubideak arautzen dituztenek, bai gure monarkia parlamentarioaren egitura eta Estatuaren lurralde-antolamendua taxutzen dutenek. Gainerako ordenamendua bezala, Konstituzioaren letrari eta espirituari egokitu behar zaio Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren lege-araubidea ere.

Bestalde, Espainiako gizartea eta administrazioa ikaragarri eraldatu dira azken hamarkadetan. Gizartea, gaur egun, orain dela berrogei urte baino askoz garatuagoa, libre eta pluralagoa, emantzipatuagoa eta bere eskubideez ohartuagoa da. Aldi berean, antzinako administrazio murrizt, zentralizatu eta hierarkizatua erakunde zabal eta konplexu bihurtu da; eginkizun ugari eta baliabide handiak ditu, eta deszentralizatua dago lurraldeari eta eginkizunei dagokienez. Eraldaketa horien ondorioz, hein handi batean aldatu egin dira, eta dibertsifikatu administrazio-antolamenduaren forma juridikoak, administrazioaren

organización administrativa, los fines, el contenido y las formas de la actividad de la Administración, los derechos que las personas y los grupos sociales ostentan frente a ella y, en definitiva, el sistema de relaciones regido por el Derecho Administrativo.

Todos estos cambios repercuten en una u otra forma sobre la Jurisdicción Contencioso-Administrativa. Concebida en origen como jurisdicción especializada en la resolución de un limitado número de conflictos jurídicos, ha sufrido hasta la saturación el extraordinario incremento de la litigiosidad entre ciudadanos y Administraciones y de éstas entre sí que se ha producido en los últimos tiempos. En este aspecto los problemas son comunes a los que los sistemas de control judicial de la Administración están soportando en otros muchos países.

Pero además, el instrumental jurídico que en el nuestro se otorga a la Jurisdicción para el cumplimiento de sus fines ha quedado relativamente desfasado. En particular, para someter a control jurídico las actividades materiales y la inactividad de la Administración, pero también para hacer ejecutar con prontitud las propias decisiones judiciales y para adoptar medidas cautelares que aseguren la eficacia del proceso. De ahí que, pese al aumento de los efectivos de la Jurisdicción, pese al esfuerzo creativo de la jurisprudencia, pese al desarrollo de la justicia cautelar y a otros remedios parciales, la Jurisdicción Contencioso-Administrativa esté atravesando un período crítico ante el que es preciso reaccionar mediante las oportunas reformas.

Algunas de ellas, ciertamente, ya han venido afrontándose por el legislador en diferentes textos, más lejanos o recientes. De hecho, las normas que han modificado o que complementan en algún aspecto el régimen de la Jurisdicción son ya tan numerosas y dispersas que justificarían de por sí una refundición.

La reforma que ahora se aborda, que toma como base los trabajos parlamentarios realizados durante la anterior Legislatura —en los que se alcanzó un estimable grado de consenso en muchos aspectos—, va bastante más allá. De un lado tiene en cuenta esas modificaciones parciales o indirectas, pero no sólo para incorporarlas a un texto único, sino también para corregir aquéllos de sus elementos que la práctica judicial o la crítica doctrinal han revelado inapropiados o susceptibles de mejora. De otro lado, pretende completar la adecuación del régimen jurídico del recurso contencioso-administrativo a los valores y principios constitucionales, tomando en consideración las aportaciones de la jurisprudencia del Tribunal Constitucional y del Tribunal Supremo, la nueva organización del Estado y la evolución de la doctrina jurídica. Por último, persigue dotar a la Jurisdicción Contencioso-

jardueraren xedeak, edukia eta formak, pertsonen eta gizarte-taldeen administrazioaren aurrean dituzten eskubideak, eta, azken batean, administrazio-zuzenbidearen mende dagoen erlazio-sistema.

Aldaketa horiek guztiak eragiten diote, era batera edo bestera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari. Gatazka juridiko gutxi batzuk ebazten espezializaturiko jurisdikzio gisa sortua zena, gainezka eginik dago azken aldian, hainbestearino ugalduta dira herritarren eta administrazioen arteko eta administrazioen beren arteko auziak. Arazoak, alde horretatik, administrazioaren kontrol judizialerako sistemek beste herrialde askotan pairatzen dituzten berak dira.

Gurean, bestalde, nahiko atzeraturik geratu da jurisdikzioari bere xedeak betetzeko ematen zaion tresneria juridikoa. Bereziki, administrazioaren jarduketara materialak eta jardute-eza kontrol juridikoaren mende jartzeko tresneria, baina baita erabaki judizialak lehenbailehen exekutarazteko eta prozesuaren eraginkortasuna segurtatuko duten kautela-neurriak hartzeko tresneria ere. Horregatik, nahiz eta jurisdikzioaren pertsona-baliabideak handitu, nahiz eta jurisprudenziak sormena erakutsi, nahiz eta kautelazko justizia garatu eta beste zenbait erremedio partzial jarri, garai kritiko batean dago Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa, eta beharrezkoa da erreformen bidez aurre egitea horri.

Erreforma horietariko batzuk dagoeneko egin ere egin ditu legegileak zenbait testutan, batzuk lehenago eta beste batzuk berrikiago. Izatez, hainbeste eta hain barreiatuak dira jurisdikzio-araubidearen alderdiren bat aldatu edo osatu duten arauak, ezen horiek bakarrik aski bailirateke bategi bat justifikatzeko.

Orain ekiten zaion erreformak aurreko legegintzaldian egindako lan parlamentarioak hartzen ditu oinarri —lan haietan, nahiko adostasun maila handia lortu zen puntu askotan—, baina puskaz harago doa. Alde batetik, kontuan hartzen ditu aldaketa partzial edo zeharkako horiek, guztiak testu batera biltzeko ez ezik, zenbait gauza zuzentzeko ere, praktika judizialak edo doktrinaren kritikak erakutsi duelarik desegokiak edo hobetzeko modukoak direla. Bestetik, erreformak osatu nahi du administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren araubide juridikoa Konstituzioaren balio eta printzipioetara egokitzeko lana, aintzat harturik Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren ekarpenak, Estatuaren antolamendu berria eta doktrina juridikoaren bilakaera. Azkenik, bere eginkizuna betetzeko behar dituen tresnak eman nahi dizkio Ad-

Administrativa de los instrumentos necesarios para el ejercicio de su función, a la vista de las circunstancias en que hoy en día se enmarca.

Desde este último punto de vista, la reforma compagina las medidas que garantizan la plenitud material de la tutela judicial en el orden Contencioso-Administrativo y el criterio favorable al ejercicio de las acciones y recursos y a la defensa de las partes, sin concesión alguna a tentaciones formalistas, con las que tienen por finalidad agilizar la resolución de los litigios. La preocupación por conseguir un equilibrio entre las garantías, tanto de los derechos e intereses públicos y privados en juego como del acierto y calidad de las decisiones judiciales, con la celeridad de los procesos y la efectividad de lo juzgado constituye uno de los ejes de la reforma. Pues es evidente que una justicia tardía o la meramente cautelar no satisfacen el derecho que reconoce el artículo 24.1 de la Constitución.

Bien es verdad que lograr una justicia ágil y de calidad no depende solamente de una reforma legal. También es cierto que el control de la legalidad de las actividades administrativas puede y debe ejercerse asimismo por otras vías complementarias de la judicial, que sería necesario perfeccionar para evitar la proliferación de recursos innecesarios y para ofrecer fórmulas poco costosas y rápidas de resolución de numerosos conflictos. Pero, en cualquier caso, el régimen legal de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, insustituible en su doble función garantizadora y creadora de jurisprudencia, debe adaptarse a las condiciones del momento para hacer posible aquel objetivo.

En virtud de estas premisas, la reforma es a la vez continuista y profundamente renovadora. Continuista porque mantiene la naturaleza estrictamente judicial que la Jurisdicción Contencioso-Administrativa ya tenía en la legislación anterior y que la Constitución ha venido a consolidar definitivamente; porque mantiene asimismo el carácter de juicio entre partes que el recurso contencioso-administrativo tiene y su doble finalidad de garantía individual y control del sometimiento de la Administración al derecho; y porque se ha querido conservar, conscientemente, todo aquello que en la práctica ha funcionado bien, de conformidad con los imperativos constitucionales.

2. El Tribunal, en el plazo improrrogable de cuatro días, y poniendo de manifiesto el expediente si se hubiera recibido, convocará al representante legal de la Administración, al Ministerio Fiscal y a los recurrentes o a la persona que éstos designen como representante a una audiencia en la que, de manera contradictoria, oír a todos los personados y resolverá sin ulterior recurso.

3. La decisión que se adopte únicamente podrá mantener o revocar la prohibición o las modificaciones propuestas.

## **CAPÍTULO II**

### **Cuestión de ilegalidad**

## **Artículo 123**

1. El Juez o Tribunal planteará, mediante auto, la cuestión de ilegalidad prevista en el artículo 27.1 dentro de los cinco días siguientes a que conste en las actuaciones la firmeza de la sentencia. La cuestión habrá de ceñirse exclusivamente a aquel o aquellos preceptos reglamentarios cuya declaración de ilegalidad haya servido de base para la estimación de la demanda. Contra el auto de planteamiento no se dará recurso alguno.

2. Epaiak baietsi egingo du errekurtsua baldin eta xedapen, jarduketa edo egin-tzak edozein urraketa egiten badio ordenamendu juridikoari, botere-desbideratzea barne dela, eta babes-errekurtsuaz babestekoak diren eskubideetakoren bat urratzen badu horren ondorioz.

3. Administrazioarekiko auzien epaitegiek emandako epaien kontra dago-kion apelazioa efektu bakarrekoa izango da beti.

## **122. artikulua**

1. Biltzeko Eskubidea Arautzeko Lege Organikoan aurreikusitako bileren de-beku edo aldaketa-proposamenen kasuan, bileren sustatzaileek, debekua edo alda-keta onartzen ez dutenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango dute auzitegi eskudunaren aurrean. Debekuaren edo aldaketa-proposamenaren ja-kinarazpena jaso eta hurrengo berrogeita zortzi orduen barruan jarri beharko da errekurtsua; errekurtsua jartzeko idazkiaren kopia behar bezala erregistratua helarazi beharko diote sustatzaileek gobernu-agintariari, hark espedientea igor dezan berehala.

2. Auzitegiak, lau egunen epe luzaezinean, eta espedientea jaso badu hura ikustera emanez, entzunaldi batera deituko ditu administrazioaren legezko or-dezkaria, Fiskaltza eta errekurtsogileak edo haiek ordezkari izendatzen duten pertsona. Entzunaldi horretan, pertsonaturiko guztiak entzungo ditu auzite-giak, kontraesan printzipioaren arabera, eta ebazpena emango du, errekurtsora-ko aukerarik gabea.

3. Harturiko erabakian, debekuari edo aldaketa-proposamenari eutsi edo hura errebokatu besterik ezin egingo du auzitegiak.

## **II. KAPITULUA**

### **Legekontrakotasun-arazoa**

## **123. artikulua**

1. Epaille edo auzitegiak auto bidez planteatuko du 27.1 artikuluan aurrei-kusiriko legezkontrakotasun-arazoa, epaia irmo dela jarduketetan jasorik gelditu eta hurrengo bost egunen barruan. Legez kontrako deklaratu izateagatik de-manda baiesteko oinarri hartu diren erregelamendu-xedapenez beste ezer ez du hartuko arazoak. Arazoa planteatzen duen autoaren kontra ez dago errekurtsori-k jartzerik.

2. En este auto se acordará emplazar a las partes para que, en el plazo de quince días, puedan comparecer y formular alegaciones ante el Tribunal competente para fallar la cuestión. Transcurrido este plazo, no se admitirá la personación.

#### **Artículo 124**

1. El Juez o Tribunal que haya planteado la cuestión remitirá urgentemente, junto con la certificación del auto de planteamiento, copia testimoniada de los autos principales y del expediente administrativo.

2. El planteamiento de la cuestión se publicará en el mismo periódico oficial en que lo hubiera sido la disposición cuestionada.

#### **Artículo 125**

1. Con el escrito de personación y alegaciones podrá acompañarse la documentación que se estime oportuna para enjuiciar la legalidad de la disposición cuestionada.

2. Terminado el plazo de personación y alegaciones, se declarará concluso el procedimiento. La sentencia se dictará en los diez días siguientes a dicha declaración. No obstante, podrá el Tribunal rechazar, en trámite de admisión, mediante auto y sin necesidad de audiencia de las partes, la cuestión de ilegalidad cuando faltaren las condiciones procesales.

3. El plazo para dictar sentencia quedará interrumpido si, para mejor proveer, el Tribunal acordara reclamar el expediente de elaboración de la disposición cuestionada o practicar alguna prueba de oficio. En estos casos se acordará oír a las partes por plazo común de tres días sobre el expediente o el resultado de la prueba.

#### **Artículo 126**

1. La sentencia estimará o desestimará parcial o totalmente la cuestión, salvo que faltare algún requisito procesal insubsanable, caso en que la declarará inadmisibile.

2. Se aplicará a la cuestión de ilegalidad lo dispuesto para el recurso directo contra disposiciones generales en los artículos 33.3, 66, 70, 71.1.a), 71.2, 72.2 y 73. Se publicarán también las sentencias firmes que desestimen la cuestión.

3. Firme la sentencia que resuelva la cuestión de ilegalidad, se comunicará al Juez o Tribunal que la planteó.

2. Auto horretan, alderdiak epatzea erabakiko da, hamabost egunen epean auzia ebazteko eskumena duen auzitegiaren aurrean agertu eta alegazioak egin ahal izan ditzaten. Epe hori igarotakoan, ez da onartuko pertsonatzerik.

#### **124. artikulua**

1. Arazoa planteatu duen epaile edo auzitegiak presaz igorriko du, planteatze-autoaren ziurtagiriarekin batera, jarduketa nagusien eta administrazio-espedientearen testigantza-kopia.

2. Auzitan den xedapena argitaratu den aldizkari ofizial berean argitaratu beharko da arazoa planteatu dela.

#### **125. artikulua**

1. Pertsonatzeko idazkiarekin eta alegazioekin batera, auzitan den xedapenaren legezketasuna epaitzeko egoki iritzitako agiriak aurkeztu ahal izango dira.

2. Pertsonatzeko eta alegazioak egiteko epea bukatutakoan, amaitutzat da prozedura. Ondorengo hamar egunen barruan emango da epaia. Hala ere, betekizun prozesalak betetzen ez direnean, legezkontrakotasun-arazoa atzera bota ahal izango du auzitegiak, onarpen-izapidean, auto bidez eta alderdiei entzuerara eman beharrik izan gabe.

3. Epaia emateko epea eten egingo da baldin eta auzitegiak, hobeki ebazteko, auzitan den xedapenaren prestaketa-espedientea eskatzen badu, edo ofizioz frogaren bat egitea erabakitzen. Kasu horietan, espedienteaz edo frogaren emaitzaz alderdiei entzuerara ematea erabakiko da, eta hiru egunen epe erkidea izango da entzuerara horretarako.

#### **126. artikulua**

1. Epaia guztiz edo partez onetsi edo ezetsi egingo du arazoa, non eta ez den huts konponezinik izan betekizun prozesalen batean; halako hutsik izan bada, arazoa ez dela onartzen adieraziko du epaia.

2. Legezkontrakotasun-arazoan ere aplikatuko da xedapen orokorren aurkako zuzeneko errekurtsuoi buruz 33.3, 66, 70, 71.1.a), 71.2, 72.2 eta 73. artikuluetan xedaturikoa. Arazoa ezesten duten epai irmoak ere argitaratu egingo dira.

3. Legezkontrakotasun-arazoa ebatzen duen epaia, irmo geratutakoan, hura planteatu zuen epaile edo auzitegiari jakinaraziko zaio.

4. Cuando la cuestión de ilegalidad sea de especial trascendencia para el desarrollo de otros procedimientos, será objeto de tramitación y resolución preferente.

5. La sentencia que resuelva la cuestión de ilegalidad no afectará a la situación jurídica concreta derivada de la sentencia dictada por el Juez o Tribunal que planteó aquella.

## CAPÍTULO III

### Procedimiento en los casos de suspensión administrativa previa de acuerdos

#### Artículo 127

1. En los casos en que, conforme a las Leyes, la suspensión administrativa de actos o acuerdos de Corporaciones o Entidades públicas deba ir seguida de la impugnación o traslado de aquéllos ante la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, se procederá conforme a lo dispuesto en este precepto.

2. En el plazo de los diez días siguientes a la fecha en que se hubiera dictado el acto de suspensión o en el que la Ley establezca, deberá interponerse el recurso contencioso-administrativo mediante escrito fundado, o darse traslado directo del acuerdo suspendido al órgano jurisdiccional, según proceda, acompañando en todo caso copia del citado acto de suspensión.

3. Interpuesto el recurso o trasladado el acuerdo suspendido, el órgano jurisdiccional requerirá a la Corporación o Entidad que lo hubiera dictado para que en el plazo de diez días remita el expediente administrativo, alegue lo que estime conveniente en defensa de aquél y notifique a cuantos tuvieren interés legítimo en su mantenimiento o anulación la existencia del procedimiento, a efectos de su comparecencia ante el órgano jurisdiccional en el plazo de diez días.

4. Recibido el expediente administrativo, el órgano jurisdiccional lo pondrá de manifiesto junto con las actuaciones a los comparecidos en el procedimiento, convocándolos para la celebración de la vista, que se celebrará como mínimo a los diez días de la puesta de manifiesto del expediente.

5. El órgano jurisdiccional podrá, motivadamente, sustituir el trámite de vista por el de alegaciones escritas, que se presentarán en el plazo común de los diez días siguientes a la notificación del auto en que así se acuerde. Podrá también abrir un período de prueba, para mejor proveer, por plazo no superior a quince días.

4. Beste prozedura batzuen aurrerabiderako garrantzi berezia duenean, lehenetasunez izapidetuko eta ebatziko da legezkontrakotasun-arazoa.

5. Legezkontrakotasun-arazoa ebazten duen epaiak ez dio eragingo hura planteatu zuen epaile edo auzitegiak emandako epaitik eratorritako egoera juridiko partikularrari.

### III. KAPITULUA

#### **Erabakien aurretiko administrazio-geldiera kasuetarako prozedura**

##### **127. artikulua**

1. Baldin eta, legeek diotenaren arabera, korporazio edo entitate publikoen egintza edo erabakiren baten administrazio-geldieraren ondoren egintza edo erabaki hori administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean aurkaratu edo hari helarazi beharra badago, manu honetan xedatu bezala jokatu da.

2. Geldiera-egintza eman den dataren ondorengo hamar egunen epean, edo legeak ezarritako epean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri beharko da, idazki funtsatu baten bidez, edo zuzenean jurisdikzio-organoari helarazi geldieran utzitako erabakia, zer dagokion; kasu batean nahiz bestean, geldiera-egintzaren kopia erantsi beharko da.

3. Errekurtsoa jarritakoan edo geldieran utzitako erabakia helarazitakoan, jurisdikzio-organoak errekerimendua egingo dio korporazio edo entitateari, hamar egunen epean administrazio-espeditentea igor dezan, geldieran utzitako erabakiaren defentsan egoki deritzona alega dezan eta geldieran utzitako erabakiak jarraitzearen edo deuseztatzearen inguruan interes legitimoa duten guztiei prozeduraren berri jakinaraz diezaien, hamar egunen epean jurisdikzio-organoaren aurrean agertu ahal izateko.

4. Jurisdikzio-organoak, administrazio-espeditentea jasotakoan, prozesuan agertutakoei ikustera emango die hura, jarduketekin batera, eta ikustaldirako deia egingo die. Ikustaldirako, gutxienez hamar egun iragan beharko dira espeditentea ikustera ematen denetik.

5. Jurisdikzio-organoak, zioak emanik, alegazio idatzien izapidea ezarri ahal izango du ikustaldiaren orde. Alegazioak egiteko, hamar egunen epe erki-dea izango da, hala erabakitzen den autoa jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita. Orobat, frogaldi bat ireki ahal izango du, hobeki ebaztearren, gehienez ere hamabost eguneko.

6. Celebrada la vista o deducidas las alegaciones a que se refieren los apartados anteriores, se dictará sentencia por la que se anule o confirme el acto o acuerdo objeto del recurso, disponiendo lo que proceda en cuanto a la suspensión.

## TÍTULO VI

### DISPOSICIONES COMUNES A LOS TÍTULOS IV Y V

#### CAPÍTULO I

##### Plazos

#### Artículo 128

1. Los plazos son improrrogables y una vez transcurridos se tendrá por caducado el derecho y por perdido el trámite que hubiere dejado de utilizarse. No obstante, se admitirá el escrito que proceda, y producirá sus efectos legales, si se presentare dentro del día en que se notifique el auto, salvo cuando se trate de plazos para preparar o interponer recursos.

2. Durante el mes de agosto no correrá el plazo para interponer el recurso contencioso-administrativo ni ningún otro plazo de los previstos en esta Ley salvo para el procedimiento para la protección de los derechos fundamentales en el que el mes de agosto tendrá carácter de hábil.

3. En casos de urgencia, o cuando las circunstancias del caso lo hagan necesario, las partes podrán solicitar al órgano jurisdiccional que habilite los días inhábiles en el procedimiento para la protección de los derechos fundamentales o en el incidente de suspensión o de adopción de otras medidas cautelares. El Juez o Tribunal oirá a las demás partes y resolverá por auto en el plazo de tres días, acordando en todo caso la habilitación cuando su denegación pudiera causar perjuicios irreversibles.

#### CAPÍTULO II

##### Medidas cautelares

#### Artículo 129

1. Los interesados podrán solicitar en cualquier estado del proceso la adopción de cuantas medidas aseguren la efectividad de la sentencia.

6. Aurreko zenbakietan aipatu bezala ikustaldia egindakoan edo alegazioak aurkezturikoan, epaia emango da. Epaian, deuseztatu edo berretsi egingo da errekurtsopeko egingtza edo erabakia, eta dagokiona xedatuko da geldierari buruz.

## IV. TITULUA

### IV. ETA V. TITULUEN XEDAPEN ERKIDEAK

#### I. KAPITULUA

##### Epeak

#### 128. artikulua

1. Epeak luzaezinak dira; haiek iragandakoan, iraungitzat hartuko da esku-bidea, eta galdutzat, berriz, erabili gabeko izapidea. Hala ere, onartu egingo da dagokion idazkia, eta bere legezko efektuak izango ditu, autoa jakinarazten den egunaren barruan aurkezten bada, salbu eta epea errekurtsuok prestatzeko edo jartzeko denean.

2. Abuztuko hilean, epeak ez dute korrituko; ez administrazioarekiko auzi-errekurtsua jartzeko epeak, ez lege honetan aurreikusiriko beste ezeinek. Oinarrizko eskubideak babesteko prozedura da salbuespen bakarra, hartarako baliodun izango baita abuztua.

3. Presazko kasuetan, edo kasuaren inguruabarrek beharrezko egiten dutenean, egun baliogabeak baliodun bihurtzeko eska dezakete alderdiek, oinarrizko eskubideak babesteko prozesuan edo geldiera-intzidentean edo bestelako kautela-neurriak hartzeko intzidentean. Epaille edo auzitegiak gainerako alderdiei entzun eta hiru eguneko epean ebatzi beharko du, auto bidez, eta baliodun bihurtzea onartu egingo du hori ukatzeak ezin itzulizko kalteak ekar litzakeen kasu guztietan.

#### II. KAPITULUA

##### Kautela-neurriak

#### 129. artikulua

1. Epaiaren eraginkortasuna segurtatuko duen edozein neurri har dadila eska dezakete interesdunek, prozesuaren edozein unetan.

2. Si se impugnare una disposición general, y se solicitare la suspensión de la vigencia de los preceptos impugnados, la petición deberá efectuarse en el escrito de interposición o en el de demanda.

### **Artículo 130**

1. Previa valoración circunstanciada de todos los intereses en conflicto, la medida cautelar podrá acordarse únicamente cuando la ejecución del acto o la aplicación de la disposición pudieran hacer perder su finalidad legítima al recurso.

2. La medida cautelar podrá denegarse cuando de ésta pudiera seguirse perturbación grave de los intereses generales o de tercero que el Juez o Tribunal ponderará en forma circunstanciada.

### **Artículo 131**

El incidente cautelar se sustanciará en pieza separada, con audiencia de la parte contraria, en un plazo que no excederá de diez días, y será resuelto por auto dentro de los cinco días siguientes. Si la Administración demandada no hubiere aún comparecido, la audiencia se entenderá con el órgano autor de la actividad impugnada.

### **Artículo 132**

1. Las medidas cautelares estarán en vigor hasta que recaiga sentencia firme que ponga fin al procedimiento en el que se hayan acordado, o hasta que éste finalice por cualquiera de las causas previstas en esta Ley. No obstante, podrán ser modificadas o revocadas durante el curso del procedimiento si cambiaran las circunstancias en virtud de las cuales se hubieran adoptado.

2. No podrán modificarse o revocarse las medidas cautelares en razón de los distintos avances que se vayan haciendo durante el proceso respecto al análisis de las cuestiones formales o de fondo que configuran el debate, y tampoco en razón de la modificación de los criterios de valoración que el Juez o Tribunal aplicó a los hechos al decidir el incidente cautelar.

### **Artículo 133**

1. Cuando de la medida cautelar pudieran derivarse perjuicios de cualquier naturaleza, podrán acordarse las medidas que sean adecuadas para evitar o paliar dichos perjuicios. Igualmente podrá exigirse la presentación de caución o garantía suficiente para responder de aquéllos.

2. La caución o garantía podrá constituirse en cualquiera de las formas admitidas en derecho. La medida cautelar acordada no se llevará a efecto hasta

2. Xedapen orokor bat aurkaratzen bada, eta aurkaraturiko manuen indarra geldieran uzteko eskatzen bada, errekurtsua jartzeko idazkian edo demanda-idazkian egin beharko da eskaera.

### **130. artikulua**

1. Lehian diren interes guztien balioespen xehea egin ondoren kautela-neurria hartzea erabaki daiteke, soil-soilik, egintza exekutatzek edo xedapena aplikatzek errekurtsuaren xede legitimoa galaraz lezaketela ondorioztatzen bada.

2. Kautela-neurria ukatu ahal izango da, kalte larria ekar badiezaieke interes orokorre edo hirugarren baten interesei; epaile edo auzitegiak balioetsiko du hori, xehetasunez.

### **131. artikulua**

Kautela-intzidentea pieza banandu gisa bideratuko da, kontrako alderdiari entzueran emanik, hamar egunen epean gehienez ere, eta auto bidez ebatziko da, hurrengo bost egunen barruan. Demandaturiko administrazioa ordurako agertu ez bada, aurkaraturiko egintzaren egile den organoari emango zaio entzueran.

### **132. artikulua**

1. Kautela-neurriek indarrean iraungo dute neurri horiek hartu diren prozeduran epaia irmo izan arte, edo lege honetan aurreikusiriko beste edozein kausarengatik prozedura amaitu arte. Hala ere, alda edo erreboka daitezke prozedurak dirauen bitartean, aldaketarik gertatzen bada neurriok hartzea eragin zuten inguruabarretan.

2. Ezin aldatuko edo errebokatuko dira kautela-neurriak, prozesuak dirauen denboran, eztabaidagai diren formazko edo edukizko auzien analisisian bitarte horretan egindako aurrerapenak direla eta; ezin aldatuko dira, orobat, kautela-intzidentea erabakitzean epaile edo auzitegiak egitateak balioesteko erabilitako irizpideak aldatu izategatik.

### **133. artikulua**

1. Kautela-neurriak edozein eratako kalterik ekar badezake, kalte horiek saihesteko edo arintzeko egoki diren neurriak erabaki ahal izango dira. Orobat eskatu ahal izango da kalte horietaz erantzuteko kauzio edo bermeak aurkez daitezela.

2. Zuzenbidean onarturiko moduetatik edozeinetan eratu daiteke kauzio edo bermea. Harturiko kautela-neurria ez da gauzatuko harik eta kauzio edo

que la caución o garantía esté constituida y acreditada en autos, o hasta que conste el cumplimiento de las medidas acordadas para evitar o paliar los perjuicios a que se refiere el apartado precedente.

3. Levantada la medida por sentencia o por cualquier otra causa, la Administración o la persona que pretendiere tener derecho a indemnización de los daños sufridos, podrá solicitar ésta ante el propio órgano jurisdiccional por el trámite de los incidentes, dentro del año siguiente a la fecha del alzamiento. Si no se formulase la solicitud dentro de dicho plazo, se renunciase a la misma o no se acreditase el derecho, se cancelará la garantía constituida.

#### **Artículo 134**

1. El auto que acuerde la medida se comunicará al órgano administrativo correspondiente, el cual dispondrá su inmediato cumplimiento, siendo de aplicación lo dispuesto en el Capítulo IV del Título IV, salvo el artículo 104.2.

2. La suspensión de la vigencia de disposiciones de carácter general será publicada con arreglo a lo dispuesto en el artículo 107. Lo mismo se observará cuando la suspensión se refiera a un acto administrativo que afecte a una pluralidad indeterminada de personas.

#### **Artículo 135**

El Juez o Tribunal, atendidas las circunstancias de especial urgencia que concurran en el caso, adoptará la medida sin oír a la parte contraria.

Contra este auto no se dará recurso alguno. En la misma resolución, el Juez o Tribunal convocará a las partes a una comparecencia, que habrá de celebrarse dentro de los tres días siguientes, sobre el levantamiento, mantenimiento o modificación de la medida adoptada. Celebrada la comparecencia, el Juez o Tribunal dictará auto, el cual será recurrible conforme a las reglas generales.

#### **Artículo 136**

1. En los supuestos de los artículos 29 y 30, la medida cautelar se adoptará salvo que se aprecie con evidencia que no se dan las situaciones previstas en dichos artículos o la medida ocasione una perturbación grave de los intereses generales o de tercero, que el Juez ponderará en forma circunstanciada.

2. En los supuestos del apartado anterior, las medidas también podrán solicitarse antes de la interposición del recurso, tramitándose conforme a lo dispuesto en el artículo precedente. En tal caso el interesado habrá de pedir su ra-

bermea eraturik eta jarduketetan egiaztaturik egon arte, edo aurreko zenbakian aipaturiko kalteak saihesteko edo konpontzeko erabakitako neurriak bete direla ziurtatu arte.

3. Epai bat edo beste edozein kausa dela-eta kautela-neurria kendu delarik, administrazioak edo jasandako kalteen ordaina jasotzeko eskubidea aldarrikatzen duen pertsonak kalte-ordain hori eskatu ahal izango du jurisdikzio-organoaren aurrean, intzidente-izapidearen bidez, neurria kendu eta hurrengo urtebetean. Epe horretan eskaera aurkezten ez bada, eskatzeari uko egiten bazaio edo esku-bidea egiaztatzen ez bada, ezeztatu egingo da eraturiko bermea.

### **134. artikulua**

1. Dagokion administrazio-organoari jakinaraziko zaio kautela-neurria erabakitzen duen autoa, eta berehala bete dadila xedatuko du organo horrek; halakoetan, IV. tituluaren IV. kapituluan xedaturikoa aplikatuko da, 104.2 artikulua izan ezik.

2. Izaera orokorreko xedapenak geldieran uzten badira, erabaki hori argitaratu egingo da, 107. artikuluan xedaturikoaren arabera. Gauza bera egingo da pertsona multzo zehaztugabe bati eragiten dion administrazio-egintza bat uzten bada geldieran.

### **135. artikulua**

Epaile edo auzitegiak, presa bereziko inguruabarrik baldin bada kasuan, kontrako alderdia entzun gabe hartuko du kautela-neurria.

Auto horren kontra ezin jarriko da errekurtsorik. Ebazpen berean, hurrengo hiru egunen barruan egin beharreko agerraldi baterako deia egingo die epaile edo auzitegiak alderdiei. Harturiko neurria kentzeaz, mantentzeaz edo aldatzeaz jardungo da agerraldi horretan, eta haren ostean auto bidez ebartziko du epaile edo auzitegiak. Arau orokorren arabera errekurritu ahal izango da auto hori.

### **136. artikulua**

1. Lege honen 29. eta 30. artikuluetako kasuetan, ez da kautela-neurria hartuko nabarmen hautematen bada artikulua horietan aurreikusirik egoerak ez direla gertatzen, edo neurriak interes orokorren edo hirugarren baten interesen kalte larria dakarrela; epaileak balioetsiko du hori, xehetasunak emanaz.

2. Aurreko zenbakiko kasuetan, errekurtsua jarri aurretik ere eskatu ahal izango dira kautela-neurriak, eta aurreko artikuluan xedaturikoaren arabera izapidetuko dira. Halakoetan, interesdunak neurrioren berrespena eskatu beharko

tificación al interponer el recurso, lo que habrá de hacerse inexcusablemente en el plazo de diez días a contar desde la notificación de la adopción de las medidas cautelares. En los tres días siguientes se convocará la comparecencia a la que hace referencia el artículo anterior.

De no interponerse el recurso, quedarán automáticamente sin efecto las medidas acordadas, debiendo el solicitante indemnizar de los daños y perjuicios que la medida cautelar haya producido.

### CAPÍTULO III

#### Incidentes e invalidez de actos procesales

##### Artículo 137

Todas las cuestiones incidentales que se susciten en el proceso, se sustanciarán en pieza separada y sin suspender el curso de los autos.

##### Artículo 138

1. Cuando se alegue que alguno de los actos de las partes no reúne los requisitos establecidos por la presente Ley, la que se halle en tal supuesto podrá subsanar el defecto u oponer lo que estime pertinente dentro de los diez días siguientes al de la notificación del escrito que contenga la alegación.

2. Cuando el órgano jurisdiccional, de oficio, aprecie la existencia de algún defecto subsanable, dictará providencia en que lo reseñe y otorgue el mencionado plazo para la subsanación, con suspensión, en su caso, del fijado para dictar sentencia.

3. Sólo cuando el defecto sea insubsanable o no se subsane debidamente en plazo, podrá ser decidido el recurso con fundamento en tal defecto.

### CAPÍTULO IV

#### Costas procesales

##### Artículo 139

1. En primera o única instancia, el órgano jurisdiccional, al dictar sentencia o al resolver por auto los recursos o incidentes que ante el mismo se promo-

du errekurtsua jartzean; errekurtsua, nahitaez, kautela-neurriak hartu direla jakinarazi eta hurrengo hamar egunen epean jarri beharko du. Hurrengo hiru egunen barruan, aurreko artikuluan aipaturiko agerraldirako deia egingo da.

Errekurtsua jartzen ez bada, efekturik gabe geldituko dira erabakitako neurriak, eta haiek sorturiko kalte-galerak ordaindu beharko ditu eskatzaileak.

### III. KAPITULUA

#### Intzidenteak eta egintza prozesalen baliogabetasuna

##### 137. artikulua

Prozesuan sortzen diren intzidente-arazoak pieza banandu gisa bideratuko dira, jarduketak geldieran utzi gabe.

##### 138. artikulua

1. Alegatzen bada alderdien egintzetakoren batek ez dituela lege honek ezarritako betekizunak betetzen, delako alderdiak aukera izango du akatsa zuzentzeko, edo egoki deritzon bezala kontra egiteko, alegazioa dakarren idazkia jakinarazi eta hurrengo hamar egunen barruan.

2. Jurisdikzio-organoak, ofizioz, zuzendu daitekeen akatsen bat haute-maten duenean, probidentzia bidez adieraziko du hori, eta aipaturiko epea emango du akatsa zuzentzeko, epairako ezarritako epea geldieran utzirik, hala badagokio.

3. Akatsa ezin zuzenduzkoa denean edo dagokion epean behar bezala zuzentzen ez denean bakarrik erabaki ahal izango da errekurtsua akats horretan funtsaturik.

### IV. KAPITULUA

#### Prozesuaren kostuak

##### 139. artikulua

1. Lehen auzialdian edo auzialdi bakarrean, jurisdikzio-organoak, epaia ematean edo beraren aurrean jarririko errekurtsu edo intzidenteak auto bidez

vieren, impondrá las costas, razonándolo debidamente, a la parte que sostuviere su acción o interpusiere los recursos con mala fe o temeridad.

No obstante lo dispuesto en el párrafo anterior, se impondrán las costas a la parte cuyas pretensiones hayan sido desestimadas cuando de otra manera se haría perder al recurso su finalidad.

2. En las demás instancias o grados se impondrán al recurrente si se desestima totalmente el recurso, salvo que el órgano jurisdiccional, razonándolo debidamente, aprecie la concurrencia de circunstancias que justifiquen su no imposición.

3. La imposición de las costas podrá ser a la totalidad, a una parte de éstas o hasta una cifra máxima.

4. Para la exacción de las costas impuestas a particulares, la Administración acreedora utilizará el procedimiento de apremio, en defecto de pago voluntario.

5. En ningún caso se impondrán las costas al Ministerio Fiscal.

6. Las costas causadas en los autos serán reguladas y tasadas según lo dispuesto en la Ley de Enjuiciamiento Civil.

## DISPOSICIONES ADICIONALES

### **Primera. Territorios Históricos y Comisión Arbitral del País Vasco**

1. En la Comunidad Autónoma del País Vasco, la referencia del apartado 2 del artículo 1 de esta Ley incluye las Diputaciones Forales y la Administración Institucional de ellas dependiente. Asimismo, la referencia del apartado 3, letra a), del artículo 1 incluye los actos y disposiciones en materia de personal y gestión patrimonial sujetos al derecho público adoptados por los órganos competentes de las Juntas Generales de los Territorios Históricos.

2. No corresponde a la Jurisdicción Contencioso-Administrativa el conocimiento de las decisiones o resoluciones dictadas por la Comisión Arbitral a que se refiere el artículo 39 del Estatuto de Autonomía del País Vasco.

### **Segunda. Actualización de cuantías**

El Gobierno queda autorizado para actualizar cada cinco años las cuantías señaladas en esta Ley, previo informe del Consejo General del Poder Judicial y del Consejo de Estado.

ebaztean, fede gaiztoz edo ausarkeriaz akzioari eutsi edo errekurtsuak jarri dituen alderdiari ezarriko dizkio kostuak, behar bezala arrazoiturik.

Aurreko paragrafoan xedaturikoa gorabehera, uziak ezetsi zaizkion alderdiari ezarriko zaizkio kostuak baldin eta bestela errekurtsuari bere xedea galarratzen bazaio.

2. Gainerako auzialdi edo graduetan, errekurtsua guztiz ezesten bada, errekurtsogileari ezarriko zaizkio kostuak, non eta jurisdikzio-organismoak ez duen hautesmaten, eta egoki arrazoitzen, hari ez ezartzea justifikatzen duen inguruabarren bat.

3. Kostu-ezarpena izan daitezke guztizkoa, parte baten gainekoa edo gehieneko kopuru baterainokoa.

4. Partikularrei ezarritako kostuak ordainarazteko, premiamendu bidea erabiliko du hartzekodun den administrazioak, borondatez ordaindu ezean.

5. Kostuak ez zaizkio Fiskaltzari ezarriko ezein kasutan.

6. Prozesuan sorturiko kostuak Prozedura Zibilaren Legean xedaturiko moduan arautuko eta tasatuko dira.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

### **Lehena. Lurralde historikoak eta Euskal Arbitraje Batzordea**

1. Euskal Autonomia Erkidegoan, foru-aldundiak eta haien mendeko erakunde-administrazioa ere hartzen ditu lege honen 1. artikuluko 2. zenbakian egiten den aipamenak. Halaber, 1. artikuluko 3. zenbakiko a) letrak barne hartzen ditu pertsonalaren eta ondare-kudeaketaren alorrean lurralde historikotako Batzar Nagusien organo eskudunek zuzenbide publikoari atxikirik emandako egintza eta xedapenak.

2. Ez dagokio Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari Euskadiko Autonomia Estatutuaren 39. artikulua aipatzen duen Arbitraje Batzordeak emandako erabaki edo ebazpenez arduratzea.

### **Bigarrena. Muntak eguneratzea**

Gobernua baimendurik gelditzen da lege honetan adierazitako muntak bost urtean behin eguneratzeko, aurrez Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Estatu Kontseiluak txostena emanik.

### **Tercera. Registro de sentencias**

1. Las Salas de lo Contencioso-Administrativo de los Tribunales Superiores de Justicia, de la Audiencia Nacional y del Tribunal Supremo remitirán al Consejo General del Poder Judicial, dentro de los diez días siguientes a su firma, testimonio de las sentencias dictadas en los procesos de que conozcan.

2. El Consejo General del Poder Judicial constituirá, con dichas sentencias, un Registro, cuyas certificaciones harán fe en todo tipo de procesos.

### **Cuarta. Recursos contra determinados actos, resoluciones y disposiciones**

Serán recurribles:

1. Los actos administrativos no susceptibles de recurso ordinario dictados por el Banco de España y las resoluciones del Ministro de Economía y Hacienda que resuelvan recursos ordinarios contra actos dictados por el Banco de España, así como las disposiciones dictadas por la citada Entidad, directamente, en única instancia, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo de la Audiencia Nacional de conformidad con lo dispuesto en la Ley 13/1994, de 1 de junio, de Autonomía del Banco de España.

2. Los actos administrativos no susceptibles de recurso ordinario dictados por la Comisión Nacional del Mercado de Valores y las resoluciones del Ministro de Economía y Hacienda que resuelvan recursos ordinarios contra actos dictados por la Comisión Nacional del Mercado de Valores, así como las disposiciones dictadas por la citada Entidad, directamente, en única instancia, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo de la Audiencia Nacional.

3. Las resoluciones del Tribunal de Defensa de la Competencia, directamente, en única instancia, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo de la Audiencia Nacional.

4. Las resoluciones de la Junta Arbitral regulada por la Ley Orgánica 3/1996, de 27 de diciembre, de Modificación parcial de la Ley Orgánica 8/1980, de 22 de septiembre, de Financiación de las Comunidades Autónomas, directamente, en única instancia, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo de la Audiencia Nacional.

5. Los actos administrativos dictados por la Agencia de Protección de Datos, Comisión del Sistema Eléctrico Nacional, Comisión del Mercado de las Telecomunicaciones, Consejo Económico y Social, Instituto Cervantes, Consejo de Seguridad Nuclear y Consejo de Universidades, directamente, en única instancia, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo de la Audiencia Nacional.

## Hirugarrena. Epaien erregistroa

1. Justizia-auzitegi nagusietako, Auzitegi Nazionaleko eta Auzitegi Goreneko administrazioekiko auzien salek Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari igorriko diote, sinatu eta hurrengo hamar egunen barruan, haiek arduratu diren prozesuetan emandako epaien testigantza.

2. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak erregistro bat eratuko du epai horiekin. Erregistro horren ziurtagiriek fede egingo dute era guztietako prozesuetan.

## Laugarrena. Zenbait egintza, ebazpen eta xedapenen kontrako errekurtsok

Errekurritu daitezkeenak dira:

1. Espainiako Bankuak eman dituen eta errekurtsu arrunterako aukerarik ez duten administrazio-egintzak; Espainiako Bankuaren egintzen kontrako errekurtsu arruntak ebazten dituzten Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren ebazpenak; eta orobat Espainiako Bankuak emandako xedapenak, Auzitegi Nazionaleko administrazioarekiko auzien salaren aurrean, zuzenean eta auzialdi bakarrean, Espainiako Bankuaren Autonomiari buruzko 1994ko ekainaren 1eko 13/1994 Legeak aurreikusi moduan.

2. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eman dituen eta errekurtsu arrunterako aukerarik ez duten administrazio-egintzak; Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren egintzen kontrako errekurtsu arruntak ebazteko Ekonomia eta Ogasun ministroak emandako ebazpenak; eta orobat Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak emandako xedapenak, Auzitegi Nazionaleko administrazioarekiko auzien salaren aurrean, zuzenean eta auzialdi bakarrean.

3. Lehia Babesteko Auzitegiak emandako xedapenak, Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean, zuzenean eta auzialdi bakarrean.

4. Autonomia Erkidegoen Finantzaketarako 1980ko irailaren 22ko 8/1980 Lege Organikoa partzialki aldatzen duen 1996ko abenduaren 27ko 3/1996 Lege Organikoa arauturiko Arbitraje Juntak emandako xedapenak, Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean, zuzenean eta auzialdi bakarrean.

5. Datuak Babesteko Agentziak, Sistema Elektriko Nazionalaren Batzordeak, Telekomunikazioen Merkaturako Batzordeak, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak, Cervantes Institutuak, Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluak eta Unibertsitate Kontseiluak emandako xedapenak, Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean, zuzenean eta auzialdi bakarrean.

6. Los actos administrativos no susceptibles de recurso ordinario dictados por la Comisión Nacional de Energía y las resoluciones del Ministro de Industria y Energía que resuelvan recursos ordinarios contra actos dictados por la Comisión Nacional de Energía, así como las disposiciones dictadas por la citada entidad, directamente, en única instancia, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo de la Audiencia Nacional.

7<sup>1</sup>. Las resoluciones del Ministro de Economía y Hacienda que resuelvan recursos de alzada contra actos o disposiciones dictadas por el Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas, directamente, en única instancia, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo de la Audiencia Nacional.

### **Quinta. Modificación del texto refundido de la Ley de Procedimiento Laboral**

El artículo 3 del texto refundido de la Ley de Procedimiento Laboral, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/1995, de 7 de abril, queda redactado como sigue:

«1. No conocerán los órganos jurisdiccionales del orden social:

a) De la tutela de los derechos de libertad sindical y del derecho a huelga relativa a los funcionarios públicos y al personal a que se refiere el artículo 1.3.a) del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores.

b) De las resoluciones dictadas por la Tesorería General de la Seguridad Social en materia de gestión recaudatoria o, en su caso, por las Entidades Gestoras en el supuesto de cuotas de recaudación conjunta, así como de las relativas a las actas de liquidación y de infracción.

c) De las pretensiones que versen sobre la impugnación de las disposiciones generales y actos de las Administraciones Públicas sujetos al Derecho Administrativo en materia laboral, salvo los que se expresan en el apartado siguiente.

2. Los órganos jurisdiccionales del orden social conocerán de las pretensiones sobre:

a) Las resoluciones administrativas relativas a la imposición de cualesquiera sanciones por todo tipo de infracciones de orden social, con las excepciones previstas en la letra b) del apartado 1 de este artículo.

---

<sup>1</sup> Punto añadido por la Ley 41/1999, de 12 de noviembre.

6. Energiaren Batzorde Nazionalak eman dituen eta errekurso arrunterako aukerarik ez duten administrazio-egintzak; Energiaren Batzorde Nazionalaren egintzen kontrako errekursoak ebazten dituzten Industria eta Energia ministroaren ebazpenak; eta orobat Energiaren Batzorde Nazionalak emandako xedapenak, Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean, zuzenean eta auzialdi bakarrean.

7<sup>1</sup>. Kontabilitatearen eta Kontu Auditoretzaren Institutuak emandako egintza edo xedapenen aurkako errekursoak ebazten dituzten Ekonomia eta Ogasun ministroaren ebazpenak, Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean, zuzenean eta auzialdi bakarrean.

### **Bosgarrena. Lan Arloko Prozeduraren Legearen testu bategina aldatzea**

Honela gelditzen da 1995eko apirilaren 7ko 2/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onarturiko Lan Arloko Prozeduraren Legearen testu bateginaren 3. artikulua:

«1. Ez dira gizarte-arloko jurisdikzio-organoen ardura:

a) Askatasun sindikalerako eskubideen eta grebarako eskubidearen babesa, funtzionario publikoei dagokienez eta Langileen Estatutuaren Legearen testu bategineko 1.3.a) artikuluan aipaturiko enplegatuei dagokienez.

b) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak diru-bilketaren gaian emandako ebazpenak edo, batera biltzeko kuoten kasuan, erakunde kudeatzaileek emandakoak; orobat, likidazio eta arau-hauste aktei dagozkien ebazpenak.

c) Lan-arloko gaietan administrazio publikoek onartutako xedapen orokorak eta administrazio-zuzenbideari atxikirik emandako egintzak aurkaratzearekin zerikusia duten uziak, hurrengo zenbakian adierazitakoak salbu.

2. Gizarte-arloko jurisdikzio-organoen ardura izango dira honako gai hauen inguruko uziak:

a) Gizarte-arloko edonolako arau-hausteengatik jarritako zigor ororen inguruko ebazpen administratiboak; salbuespen dira artikulua honen 1. zenbakiko b) letran aurreikusiak.

---

<sup>1</sup> 1999ko abenduaren 12ko 41/1999 Legeak erantsi zuen puntu hau.

b) Las resoluciones administrativas relativas a regulación de empleo y actuación administrativa en materia de traslados colectivos.

3 En el plazo de nueve meses desde la entrada en vigor de esta Ley, el Gobierno remitirá a las Cortes Generales un Proyecto de Ley para incorporar a la Ley de Procedimiento Laboral las modalidades y especialidades procesales correspondientes a los supuestos del anterior número 2. Dicha Ley determinará la fecha de entrada en vigor de la atribución a la Jurisdicción del Orden Social de las materias comprendidas en el número 2 de este artículo.»

### **Sexta<sup>2</sup>. Modificación del texto articulado de la Ley de Bases sobre el procedimiento económico-administrativo**

**Séptima.** Los juzgados y Tribunales del orden Contencioso-Administrativo también conocerán de las cuestiones que se promuevan entre Sociedad Estatal Correos y Telégrafos, SA, y los empleados de ésta que conserven la condición de funcionarios y presten servicios en la misma, en los mismos términos en que conocen las cuestiones que se plantean entre los organismos públicos y su personal funcionario, atendiendo a la naturaleza específica de esta relación.

## DISPOSICIONES TRANSITORIAS

### **Primera. Asuntos de la competencia de los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo**

1. Los procesos pendientes ante las Salas de lo Contencioso-Administrativo de los Tribunales Superiores de Justicia cuya competencia corresponda, conforme a esta Ley, a los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo, continuarán tramitándose ante dichas Salas hasta su conclusión.

2. En tanto no entren en funcionamiento los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo, las Salas de lo Contencioso-Administrativo de los Tribunales Superiores de Justicia ejercerán competencia para conocer de los procesos que, conforme a esta Ley, se hayan atribuido a los Juzgados. En estos casos, el régimen de recursos será el establecido en esta Ley para las sentencias dictadas en segunda instancia por las Salas de lo Contencioso-Administrativo de los Tribunales Superiores de Justicia.

---

<sup>2</sup> Derogada.

b) Enplegu-erregulazioari buruzko ebazpen administratiboak, eta lantoki-aldaketa kolektiboetan administrazioak izandako jarduerari buruzkoak.

3. Lege hau indarrean jarri eta bederatzi hilabeteko epean, Gobernuak Gorte Nagusietara igorriko du lege-proiektu bat, haren bidez gehitzeko Lan Arloko Prozeduraren Legeari aurreko 2. zenbakiko kasuei dagozkien prozesu-aldakerak eta berezitasunak. Lege horrek zehaztuko du zer egunetatik aurrera sartuko den indarrean artikuluko honen 2. zenbakiko gaiak Gizarte Arloko Jurisdikzioari esleitzea.»

## **Seigarrena<sup>2</sup>. Prozedura Ekonomiko-administratiboari buruzko Oinarri Legearen testu artikulatua aldatzea**

**Zazpigarrena.** Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioko epaitegi eta auzitegiak arduratuko dira, orobat, Sociedad Estatal Correos y Telégrafos SAREN eta hartan funtzionario-izaeraz lan egiten duten enplegatuen artean sorturiko arazoek, erakunde publikoen eta haien funtzionarioen arteko arazoek arduratzen diren modu berean, harreman horren izaera berezia kontuan hartuta.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

### **Lehena. Administrazioarekiko auzien epaitegien eskumeneko auziak**

1. Justizia-azitegi nagusietako administrazioarekiko auzien saletan ebazkizun dauden prozesuak, lege honen arabera administrazioarekiko auzien epaitegiei badagokie eskumena, sala horietan izapidetuko dira amaitu arte.

2. Administrazioarekiko auzien epaitegiak jardunean hasi bitartean, justizia-azitegi nagusietako administrazioarekiko auzien salek izango dute eskumena lege honek epaitegi horiei esleitu dizkien prozesuez arduratzeko. Halako kasuetan, errekursoei dagokienez, justizia-azitegi nagusietako administrazioarekiko auzien salek bigarren auzialdian emandako epaientzat lege honetan ezarritakoari jarraituko zaio.

---

<sup>2</sup> Derogatu.

## **Segunda. Procedimiento ordinario**

1. Los recursos Contencioso-Administrativos interpuestos con anterioridad a la entrada en vigor de esta Ley continuarán sustanciándose conforme a las normas que regían a la fecha de su iniciación.

2. No obstante, cuando el plazo para dictar sentencia en tales procesos se hubiere iniciado con posterioridad a la entrada en vigor de esta Ley, se hará aplicación en la sentencia de lo dispuesto en la Sección 8.<sup>a</sup> del Capítulo I del Título IV. Si hubiera de aplicarse un precepto que supusiera innovación, se otorgará a las partes un plazo común extraordinario de diez días para oír las sobre ello.

3. Serán asimismo aplicables las reglas de la Sección 9.<sup>a</sup> del Capítulo I del Título IV a todos los recursos Contencioso-Administrativos en que no se hubiese dictado sentencia a la entrada en vigor de esta Ley.

## **Tercera. Recursos de casación**

1. El régimen de los distintos recursos de casación regulados en esta Ley será de plena aplicación a las resoluciones de las Salas de lo Contencioso-Administrativo de la Audiencia Nacional y de los Tribunales Superiores de Justicia que se dicten con posterioridad a su entrada en vigor y a las de fecha anterior cuando al producirse aquélla no hubieren transcurrido los plazos establecidos en la normativa precedente para preparar o interponer el recurso de casación que procediera. En este último caso, el plazo para preparar o interponer el recurso de casación que corresponda con arreglo a esta Ley se contará desde la fecha de su entrada en vigor.

2. Los recursos de casación preparados con anterioridad a la entrada en vigor de esta Ley se regirán por la legislación anterior.

## **Cuarta. Ejecución de sentencias**

La ejecución de las sentencias firmes dictadas después de la entrada en vigor de esta Ley se llevará a cabo según lo dispuesto en ella. Las dictadas con anterioridad de las que no constare en autos su total ejecución se ejecutarán en lo pendiente con arreglo a la misma.

## **Quinta. Procedimiento especial para la protección de los derechos fundamentales de la persona**

Los recursos interpuestos en materia de protección de los derechos fundamentales de la persona con anterioridad a la entrada en vigor de esta Ley continuarán sustanciándose por las normas que regían a la fecha de su iniciación.

## **Bigarrena. Prozedura arrunta**

1. Lege hau indarrean sartu aurretik jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoak, gero ere, hasi zirenean indarrean ziren arauen arabera bideratuko dira.

2. Hala ere, prozesu horietan epaia emateko epea lege hau indarrean jarri ondoren hasia bada, epaian aplikatzekoa izango da IV. tituluko I. kapituluaren 8. atalean xedaturikoa. Berrikuntza dakarren manuren bat aplikatu behar bada, horri buruz entzuteko hamar egunen epe berezi bat emango zaie alderdiei.

3. IV. tituluko I. kapituluaren 9. ataleko erregelak ere aplikatzekoak izango dira lege hau indarrean sartzean epaia eman gabe dauden administrazioarekiko auzi-errekurtso guztietan.

## **Hirugarrena. Kasazio-errekurtsoak**

1. Lege honetako kasazio-errekurtsoen araubidea guztiz aplikatzekoa izango da Auzitegi Nazionaleko eta justizia-uzitegi nagusietako administrazioarekiko auzien salek legea indarrean sartu ondoren ematen dituzten ebazpenetan. Aplikatzekoa izango da, orobat, legea indarrean sartu aurretik emandakoetan, baldin eta indarrean sartzeko unean amaituak ez badira dagokion kasazio-errekurtsoa prestatzeko edo jartzeko aurreko araudian ezarritako epeak. Kasu horretan, legea indarrean jartzen den datatik aurrera hasiko da kontatzen kasazio-errekurtsoa prestatzeko edo jartzeko lege honen arabera dagokion epea.

2. Lege hau indarrean sartu aurretik prestatutako kasazio-errekurtsoetarako, aurreko legeriari jarraituko zaio.

## **Laugarrena. Epaien exekuzioa**

Lege honetan xedaturikoaren arabera exekutatuko dira legea indarrean jarri ondoren emandako epaiak, irmo geratzean. Aurretik emandakoak ere, jarduketetan ez bada jasorik geratu guztiz exekutatu direla, lege honen arabera exekutatuko dira exekutatzeke dagoen partean.

## **Bosgarrena. Pertsonaren oinarrizko eskubideak babesteko prozedura berezia**

Pertsonaren oinarrizko eskubideak babesteari dagokionez lege hau indarrean sartu aurretik jarritako errekurtsoak, gero ere, hasi zirenean indarrean zeuden arauen arabera bideratuko dira.

### **Sexta. Cuestión de ilegalidad**

La cuestión de ilegalidad sólo podrá plantearse en todos los procedimientos cuya sentencia adquiriera firmeza desde la entrada en vigor de esta Ley.

### **Séptima. Procedimiento especial en materia de suspensión administrativa de acuerdos**

El régimen del procedimiento especial en los casos de suspensión administrativa de acuerdos regulado en el artículo 127 será de aplicación a las impugnaciones y traslados de actos suspendidos que tengan lugar con posterioridad a su entrada en vigor, aunque dichos actos hubieran sido dictados antes de esa fecha.

### **Octava. Medidas cautelares**

En los procedimientos pendientes a la entrada en vigor de esta Ley podrán solicitarse y acordarse las medidas cautelares previstas en el Capítulo II del Título VI.

### **Novena. Costas procesales**

El régimen de costas procesales establecido en esta Ley será aplicable a los procesos y a los recursos que se inicien o promuevan con posterioridad a su entrada en vigor.

## **DISPOSICIONES DEROGATORIAS**

### **Primera. Cláusula general de derogación**

Quedan derogadas todas las normas de igual o inferior rango en lo que se opongan a la presente Ley.

### **Segunda. Derogación de normas**

Quedan derogadas las siguientes disposiciones:

a) La Ley reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, de 27 de diciembre de 1956.

b) Los artículos 114 y 249 del Decreto 118/1973, de 12 de enero, Texto refundido de la Ley de Reforma y Desarrollo Agrario.

c) Los artículos 6, 7, 8, 9 y 10 de la Ley 62/1978, de 26 de diciembre, de Protección Jurisdiccional de los Derechos Fundamentales de la Persona.

### **Seigarrena. Legezkontrakotasun-arazoa**

Epaiak irmotasuna lege hau indarrean sartu ondoren hartzen duen prozesuetan bakarrik planteatu ahal izango da legezkontrakotasun-arazoa.

### **Zazpigarrena. Erabakien administrazio-geldierari dagokion prozedura berezia**

Lege honen 127. artikuluan administrazio-geldiera kasuetarako arauturiko prozedura berezia aplikatuko da geldieran utzitako egintzak direla-eta lege hau indarrean sartu ondoren egiten diren aurkarapen eta helarazpenetan, legea indarrean sartu aurretik emanak izanik ere egintzak.

### **Zortzigarrena. Kautela-neurriak**

